

Autoevaluazio txostena egiteko tutoriala, doktorego programen akreditazioa berritzeko (2021)

EDUKIA

1.-NORI DAGO ZUZENDUA ESKULIBURUA?	2
2.-ALDEZ AURREKO ALDERDIAK	2
3.-UNIKUDERA SARTZEA	2
4.-DOKTOREGO PROGRAMEN AKREDITAZIOA BERRITZEKO TXOSTENA	3
4.1.-EBIDENTZIEN ZERRENDA	4
4.1.1.-Ebidentzia taldeak.....	5
4.1.2.-Ebidentzien erlazioak	6
4.2.-TXOSTENA EGITEA	8
4.2.1.-Azala	10
4.2.2.-Irizpideak.....	10
4.2.3.-Ebidentziak esleitzea txostenari.....	13
4.3.-ANALISI OROKORRA.....	14
4.4.-AIPAMEN BEREZIAK (AUKERAKOAK).....	15
5.-TXOSTENETAN EGIN BEHARREKO EGIAZTAPENAK	17
6.-TXOSTENA ONARTZEKO ETA IXTEKO PROZESUA	17
ERANSKINA: EBIDENTZIEN ZERRENDA	19
1-7 IRIZPIDEETARAKO EBIDENTZIAK.....	19
8. IRIZPIDERAKO EBIDENTZIAK	23
9. IRIZPIDERAKO EBIDENTZIAK	24
10. IRIZPIDERAKO EBIDENTZIAK.....	25

1.-Nori dago zuzendua eskuliburua?

Dokumentu hau doktorego programetako unibertsitate titulu ofizialen akreditazioa berritzeko autoebaluazio txostenak egiteko lana koordinatu behar duten pertsonentzako da. Bertan, argibide eta orientazio erabilgarriak ematen zaizkie programen arduradunei eta Doktorego Eskolaren (DORe) arduradunei, hots, ikasketa horiek koordinatzen dituen ikastegiari.

2.-Aldez aurreko alderdiak

Doktorego programa baten akreditazioa berritzeko eskaerarekin batera, tituluaren autoebaluazio txosten bat egin behar da. Txosten hori egiteko prozesuaren oinarrian estuki lotuta dauden bi alderdi daude:

- Azken 6 ikasturteetan doktorego programak izandako bilakaerari buruzko **gogoeta** bat, UNIBASQeko¹ protokoloaren irizpideen eta ildoen arabera egituratua. Gogoeta horretan, besteak beste, alderdi hauek aztertu behar dira:
 - Memoria egiaztatuaren betetze maila.
 - Sartu eta jarraipenaren bidez UNIBASQi jakinarazi zaizkion hobekuntzak eta aldaketak.
 - Aurreko egiaztatze prozesuetan UNIBASQetik jasotako gomendioen eta hartutako konpromisoen betetze maila.
 - Prestakuntza bidean dauden ikertzaileek emaitza akademikoetan izan duten bilakaera.
- Egindako gogoeten oinarri erabili diren **datuak** eta **ebidentziak**: adierazleen emaitzak, agiriak, Interneteko loturak eta abar.


Bistan denez, bigarren lekuan aipatzen bada ere, doktorego programaren autoebaluazioaren oinarria datuen eta ebidentzien analisiak izan behar du; beraz, prozesua hasteko, lehenik eta behin, eskura dauden ebidentziak eta datuak bildu eta aztertu behar dira.

Hortaz, lehendabizi, doktorego programaren autoebaluazioaren oinarri izango diren ebidentziak UNIKUDEn nola sartzten diren aztertuko dugu. Gero, autoebaluazio txostena prestatzeari lotutako alderdiak landuko ditugu.


3.-UNIKUDEra sartzea


UNIKUDErako sarrera esteka honen bidez egingo da: <http://go.ehu.eus/UnikudeDORe>. Hasierako pantailak erabiltzailea (LDAP) eta pasahitza eskatzen ditu, aplikaziora sartu ahal izateko. Erabiltzailearen identifikazioa sartu ondoren, aplikazioaren menu nagusia agertzen da.

¹ Unibertsitate titulu ofizialen akreditazioa berritzeko UNIBASQen protokoloa: <https://www.unibasq.eus/eu/tituluak-egiaztapen-berritzea/>




4.-Doktorego programen akreditazioa berritzeko txostena

Akreditazio txostenera sartzeko,  BERRIKUSPENA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA atalera jo behar dugu. "Txostenak" irekitzekoa aukeratu ondoren, hurrengo pantailara sartuko gara, eta bertan zer txosten mota egin nahi dugun adieraziko dugu; gure kasuan, "Doktoregoaren akreditazio txostena".



Dagokion akreditazio txostena aukeratu ondoren, zer ikasturte eta programa landu nahi diren adierazi beharko dugu. Aplikazioak iragazki bat dauka eskura dauden aukerak erabiltzailearen profilari dagozkionak izan daitezen (kasu honetan, programaren arduraduna). Behin ikasturtea (berez aukeratutakoa) eta doktorego programa aukeratuta, aurkibidera joango gara, eta hor, hiru atal hauek ikusiko ditugu: "Autoebaluazio txostena,

unibertsitate doktoregoaren akreditazioa berritzeko”, “Ebidentzien zerrenda” eta “Adierazleen taula”.




- **Akreditazioa berritzeko autoebaluazio txostena:** atal honetan doktorego programaren nondik norako hainbat alderdi aztertuko dira, akreditazio irizpideen betetze mailaren berri emanez eta irizpide bakoitzaren betetze maila baloratuz.
- **Ebidentzien zerrenda:** atal honetan autoebaluazio txostena osatuko duten ebidentziak lotuta geratuko dira.
- **Adierazleen taula:** UNIKUDEn eskuragarri dagoen ebidentzia, autoebaluazio txostena idazteko erabiliko dena.

Pantailaren beheko aldean “Deskargatu protokoloa” botoia agertuko da. Horren bidez, txantilo erako dokumentu editagarri bat (docx) jaitsi daiteke, autoebaluazio txostenaren atal guztiak dituen. Gomendioa da txostena dokumentu horretan egitea, gero testuak UNIKUDE aplikaziora eramateko.

OHARRA: Aplikazio batetik testuak kopiatzen direnean eta UNIKUDEn itsasten direnean, gerta daiteke jatorrizko aplikazioan erabilitako formatuei dagozkien karaktere berezi ezkutuak ere itsastea. Horrek karaktere arrotzak sartzea eragin dezake, baita testu bat galtzea ere UNIKUDEn. Hori saihesteko, nabigatzailearen **“itsatsi testu lau gisa”** aukera erabili behar da.

4.1.-Ebidentzien zerrenda

“Ebidentzien zerrenda” pantailan, bost atal daude, eta horietan lotu egin beharko dira gogoetaren oinarri diren ebidentziak, eta irizpide bakoitzean kontuan izandako ildoetako buruz autoebaluazio txostenaren egindako balorazioak.



Tutorial honen eranskinean, autoebaluazio txostenak egiteko masterreko tituluetan erabili eta baloratu beharreko ebidentzien zerrenda osoa (nahitaezkoak eta osagarriak) jasotzen da.

4.1.1.-Ebidentzia taldeak

Oro har, ebidentziaren informazio iturriaren eta kontuan izan beharreko irizpideen arabera, talde hauek daude:

- **UPV/EHUko Zerbitzuek** emandako ebidentziak, oinarri izango direnak 1.7 irizpideetarako. Bloke honetan, ebidentziak nahitaezkoak dira.
- Informazio iturri **doktorego programako batzorde akademikoa** duten ebidentziak, 1-7 irizpideen baloraziorako oinarri izango direnak. Bloke honetako ebidentziak nahitaezkoak eta osagarriak izan behar dira, hau da, bietarikoak.

Ebidentzia osagarriak: gure proposamenaren arabera, mota honetako ebidentziak irizpide hauek betetzen dituztenak izango dira:

- a) gogoeta eta balorazioa oinarritzeko egoki direnak;
- b) dokumentuen bidez eskuragarri daudenak.

Beraz, doktorego programako batzorde akademikoaren ustez beste ebidentziaren bat baldin badago irizpideen betetze mailaren balorazioan oinarri izan daitekeena, bada, erabili ahal izango du.

- Hauek dira egun doktorego programako batzorde akademikoa informazio iturri duten ebidentziak, aukerako irizpideen baloraziorako oinarri direnak:
 - * 8: Nazioarteko aipamena - Euskera
 - * 9: Transferentzia aipamena
 - * 10: Enplegarritasun aipamena

Aurreko blokean bezala, eta hiru atal hauei dagokienez, batzorde akademikoak irizpideen maila behar bezala oinarritzeko egoki izan daitezkeen ebidentziak erantsi ahal izango dira.

Ebidentzien formatuari dagokionez, oro har, bi motatakoa izan daiteke:

- Webgune baten URLa, non ebidentzia gisa erabili beharreko informazioa egongo baita.
- Fitxategi bat, eskuarki pdf bat edo karpeta konprimitu bat, informazio kualitatiboa (txostenak, bileren aktak, etab.) eta/edo kuantitatiboa (datuak, taulak, etab.) izango duena.

Modu osagarrian, ebidentzia formatu berezi bat dago, "**Kalkulatua**" izenekoa. UNIKUDE aplikazioan sortzen den pdf dokumentu bat da, nahitaezko ebidentzia gisa erabiltzeko. Doktorego programen kasuan, ebidentzi honi "Adierazleen taula" deritzo.

4.1.2.-Ebidentzien erlazioak

Ondoren, azalduko dugu zer egin behar den behar diren ebidentziak lortzeko UNIKUDEN. Horrela, erlazionatutako ebidentziak guztiak sartu ahal izango dira irizpideak eta ildoak "betetzea bermatzen duten ebidentziak" taldean, doktorego programa berritzeko autoebaluzio txostenaren bi ataletan, hau da: txostenean bertan eta ebidentzien azken zerrendan.

Lehenik eta behin, oinarritzeko zenbait alderdi izan behar dira kontuan ebidentziak prestatzeko eta erlazioak sortzeko. Hau da:


- Doktorego programako arduradunak koordinatu egin behar dira Doktorego Eskolako Kalitatearen Kudeaketako Azpizuzendaritzarekin.
- Zentroko arduradunak, kasu honetan DOKE-ko arduradunak, dira 1-7 irizpideetarako UPV/EHUko zerbitzuek emandako ebidentziak sortu edo alda ditzaketen bakarrak.
- Doktorego programako arduradunek aldaketak egin ditzakete edo beharrezko diren aldaketa egin batzorde akademikoak emandako ebidentziak erlazionatzerakoan.

Ebidentziei dagokienez, bi gauza garrantzitsu izan behar dira kontuan:

1. Titulazioen akreditazioetan, oro har, bukatutako azken urteko erreferentziak aipatzen dira, hau da, 2019/20 ikasturtekoak. Hala ere, ebidentzia batzuetarako epe zabalagoa hartu daiteke kontuan, adibidez, 2014-15etik 2019-20ra.
2. "Erlazionatu ebidentzia" botoia sakatzean batzorde akademikoak emandako ebidentziak aukeratzeko, beste leiho bat irekiko da bi elementurekin:
 - * **Titulo:** ebidentziaren izena idatzi behar da. "Eranskina: ebidentzien zerrena" atalean ageri den ebidentzia bada, gomendioa da bertan agertzen den moduan idaztea: izen bera ematea. Batzordeak emandako ebidentzia bada, gomendioa da ebidentziaren edukia deskribatzen duen izen bat jartzea.
 - * **Tipo:** ebidentziak Dokumentuak edo webgunetarako URLak izan daitezke. Mota hautatu ondoren, espazio bat agertuko da, eta hor artxiboa edo URLa jarri beharko dugu.




- * Ebidentziaren eta dokumentuaren izenean ezin da **idatzi tildarik ez espazio edo karaktere berezirik**.

Eremuak bete ondoren, sakatu "Onartu" botoia ebidentziak gordetzeko.



Ebidentziak erlazionatu ahala, orrialde horretan zerrendatzen joango dira dagokien taulan. Taulak hiru zutabe ditu:



Ezkerretara, ikur hauek agertuko dira:


- Luparen ikonoan  ebidentzia bakoitzak duen informazioa ikusten dugu.
- Arkatzaren ikonoak  ebidentziaren atalak aldatzea ahalbidetzen digu: titulua eta mota (URL/dokumentua).
- Zaborrontziaren ikonoak  ebidentzia ezabatzea ahalbidetzen digu.

Erdiko zutabeetan, ebidentzia gorde ondoren aplikazioak ebidentziari esleitu dion kodea agertuko da. Hauek dira kodeak:

- 35 kodea eta hurrengoak: 1-7 irizpideetan oinarritutako ebidentziak.
(UPV/EHUko zerbitzuek emandako ebidentziak 1-34 kodea izango dute).
- I01 kodea eta hurrengoak: 8 hautazko irizpideetan oinarritutako ebidentziak.
- T01 kodea eta hurrengoak: 9 hautazko irizpideetan oinarritutako ebidentziak.
- E01 kodea eta hurrengoak: 10 hautazko irizpideak oinarri dituen ebidentziak.

Bestalde, erlazionatutako ebidentzien hurrenkera (zenbakia) aldatzeko:


- Egin klik  ikonoan, taulako ezkerreko zutabeko lehen errenkadan.
- Ondoren, taulako eskumako zutabeetan, gezi batzuk agertuko dira eta horiek erabili behar dira hurrenkera aldatzeko.
- Azkenik, egin klik el  ikonoan ebidentzien hurrenkera berria gordetzeko.



4.2.-Txostena egitea

Orain arte deskribatutako urratsen bidez azken sei ikasturteetan doktorego programak egindako ibilbideari buruzko gogoeta eta analisia egiteko beharrezkoak diren ebidentziak eta adierazleak lortuko ditugu. Behin hori eginda, akreditazioa berritzeko txostena osatu behar dugu.


Txostena idazten hasteko, **Akreditazioa berritzeko autoebaluazio txostena** atalera joan behar dugu, eta hor haren aurkibidea ikusiko dugu; hiru atal hauek ditu: Azala, Irizpideak eta Anlisi orokorra.



Pantaila honetan hiru botoi ageri dira:

- **Akreditazio aurkibidea:** horren bidez, txostenaren hasierako pantailara itzultzen gara, ebidentziak kudeatzeko.
- **Balidatu txostena:** horren bidez, egoera aldatzen zaio txostenari, onartzeke egotetik onartua egotera (ikus aurrerago eskuliburu honetan).
- **Ikusi PDF:** horren bidez, zirriborro dokumentu bat sortzen da, inprimatzeko formatuan jaitsi daitekeena eta, onartu ondoren, Unibasqera igorriko dena.

PDF dokumentuak autoebaluzio txostenaren informazio guztia dauka, eta idazketaren edozein unetan sor daiteke. Txostenaren oinarrizko egitura honako hau da:



Doktorego programa aipamen bereziren baterako (edo guztietarako) akreditatu nahi bada, txostenaren egituran aukeratutako aipamen bereziei buruzko analisia eta ebidentziak sartu behar dira (ikusi: 4.4. atala, aipamen bereziei buruzkoa (aukerakoa)).


“Ikusi PDF” aukeraren bidez txostena sortzen dugunean, txostenaren izenburuaz gain, haren azalean informazio hau agertuko zaigu:

- Txostena zein doktorego programari dagokion
- Atxikipen zentroa:
 - Doktorego eskola (DORe) / Escuela de Doctorado (DOKe)
- Txostena nork onartu duen:
 - Doktorego Eskolako Kontseilu Iraunkorra: (onartze data)

Autoebaluazio txostena egiteko, UNIKUDE aplikazioan ezarritako ordenari jarraitzea gomendatzen dugu: Azala, Irizpideak eta Analisi orokorra; dena dela, edozein ataletik sar gaitzke modu independentean.

4.2.1.-Azala

Azalaren atalera sartzean, doktorego programaren datu orokorrak biltzen dituen informazio pantaila bat agertuko zaigu. Bertan, doktorego programaren webgunerako eta ikastegiko webgunerako URLak agertzen dira.



Pantailaren goiko partean zerranda bat ageri da eta hortik aukera izango dugu autoebalatu beharreko irizpideetara sartzeko zuzenean. Bestalde, klik eginez ezkerreko erlaitzean, autoebaluazio txostenaren aurkibidera joan gaitzke.

4.2.2.-Irizpideak

Txostenak hainbat atal ditu, eta horietan doktorego programa nola garatzen den baloratu behar dugu, hainbat irizpide eta ildoren arabera, zeinak hiru dimentsio hauetan multzokatzen baitira: doktorego programaren kudeaketa, baliabideak eta emaitzak.

1. DIMENTSIONA. TITULUAREN KUDEAKETA

- 1. irizpidea. ANTOLAKUNTZA ETA GARAPENA: Doktorego programa egiaztatutako memorian eta, halakorik izan bada, haren aldaketetan ezarritako baldintzen arabera ezarri da.

- 2. irizpidea. INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA: Unibertsitateak bitartekoak ditu doktorego programaren eta haren kalitatea bermatzen duten kudeaketa prozesuen ezaugarrien eta emaitzen berri emateko interes talde guztiei.
- 3. irizpidea. KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMA (KBBS): Irizpide honetan, erakundeak kalitatea bermatzeko barne sistemarik baduen aztertzen da; formalki ezarritako sistema bat, tituluaren kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatzeko era eraginkorren.

2. DIMENTSIOA. BALIABIDEAK

- 4. irizpidea. IRAKASLEAK: Irakasle nahikoak daude, eta egokiak dira, doktorego programaren ezaugarriak, zientzia arloa eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kopurua aintzat hartuta.
- 5. irizpidea. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK: Aurreikusitako jarduerak garatzeko eskura jarritako baliabide materialak eta zerbitzuak egokiak dira, doktorego programaren ezaugarriak, zientzia arloa eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kopurua aintzat hartuta.


3. DIMENTSIOA. EMAITZAK

- 6. irizpidea. IKASKUNTZA EMAITZAK: Ikaskuntza emaitzak bat datoz MECESaren 4. mailarekin.
- 7. irizpidea. GOGOBEETETZE ETA ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK: Doktorego programaren adierazleen emaitzak egokiak dira, haren ezaugarriak eta gizarte, ekonomia eta ikerketa testuingurua kontuan hartuta.

Horrez gain, doktorego programa aipamen bereziren baterako (edo guztietarako) ebaluaziora aurkeztu nahi bada, irizpide hauek izan beharko ditu kontuan:

- 8. Irizpidea. NAZIOARTEKO AIPAMENA - EUSKARA (AUKERAKOA): Doktorego programak nazioartekotzeko estrategia argi bat dauka, ekintza espezifikoak egiten ditu arlo horretan, eta emaitza esanguratsuak lortzen ditu.
- 9. irizpidea. TRANSFERENTZIA AIPAMENA (AUKERAKOA): Doktorego programak estrategia argi bat dauka "Industria doktoregoa" aipamenez defendatutako tesiak egiteko, edo, bestela, tesi horiek enpresen eta/edo beste erakunde batzuen kolaborazioa jasotzen dute; era berean, programak ekintzak egiten ditu arlo horretan eta emaitza nabarmenak lortzen ditu.
- 10. irizpidea. ENPLEGAGARRITASUN AIPAMENA (AUKERAKOA): Doktorego programak tituluaren egresatuak laneratzeko estrategia argi bat dauka; ekintzak egiten ditu arlo horretan, eta emaitza esanguratsuak lortzen ditu.

Irizpide horietako bakoitzak hainbat ildotan egituratzen da, zeinak gezi formako ikonoaren bidez zabaltzen baitira.



Autoebaluazio prozesuan honakoak landu behar dira ildo bakoitzerako:

1. **Balorazio deskriptiboa** (gehienez 4.000 karaktere). Gomendagarria da gogoeta-analisia zehatza izatea, eta honako hauetan oinarritzea: i) gertaeren/datuen deskribapen/azalpen bat, ii) balorazio argumentuak, iii) oinarrian dauden ebidentzien aipamena. Adibidez:

“Koordinazioa egiteko doktorego programako irakasleek bilerak egiten dituzte hiru hilean behin (15. ebidentzia), eta horrela hutsuneak eta bikoizketak saihesten dira. Irakasleek eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileek alderdi horren gainean adieraziko gogobetetze mailen balioak oso altuak dira, 4/5 eta 4,5/5 hurrenez hurren (22. eta 23. ebidentziak).


2. **Balorazio erdi-kuantitatiboa.** 1-7 irizpideetarako, balorazioa maila hauen arabera izango da:
 - **Oso ondo lortu da:** erabat lortu da irizpiderako estandarra eta eredu bat da, ildoan deskribatutako baldintzak soberan betetzen baititu.
 - **Lortu da:** ondo bete da irizpiderako estandarra.
 - **Partzialki bete da:** ildoan deskribatutako gutxieneko baldintzak betetzen dira, baina hobetu beharreko zenbait alderdi hauteman dira.
 - **Ez da lortu:** ez da lortu estandarreko gutxienekoa.
 - **Ez da aplikatzen:** aukera hau erabiliko da doktorego programaren ezaugarriak kontuan hartuta gaia ez denean ebaluazioan sartu behar.

8., 9. eta 10. irizpideetarako, balorazioa hau izango da:

- o **Lortu da:** ondo bete da irizpiderako estandarra.


UNIBASQek adierazi du ondorengo irizpideetako batean "Ez da lortu" bada balorazioa, kontrakoa izango dela balorazio orokorra: 4. **Irakasleak**; 5. **baliabide materiala eta zerbitzuak**; eta 6. **ikaskuntza emaitzak**. (Euskal Unibertsitate Sistemako Doktorego Programen Unibertsitate Titulu Ofizialen Egiaztapena Berritzeko Protokoloa; 11. or.)

OHARRA: Txostena idatzi bitartean, gomendagarria da aipatutako alderdiak kudeatzen dituzten KBBSren prozedurak aipatzea eta kontuan hartzea. Horren bidez, KBBSk tituluaren eta ikastegiaren kudeaketan duen garrantzia islatzen da, haren KBBSren ezarpen maila agerian uzten lagunduz. Gertaera hori bereziki garrantzitsua da KBBSren ezarpenari buruzko hurrengo ebaluaziorako.



4.2.3.-Ebidentziak esleitzea txostenari

Lehen aipatu dugun moduan, irizpide bakoitzaren betetze mailaren berri emateko egindako gogoetek eta balorazioek dagozkien ebidentzietan oinarritu behar dute. Hori dela eta, irizpide bakoitzaren azken atalean, idatzitako testuetan aipatutako ebidentziak zerrendatzen dira.




Irizpidearen ildo bakoitzean egindako balorazioak bermatzeko, aipatutako ebidentzia guztiak zerrendatu behar dira. Gomendioa da ebidentzien izenak "4.1.- Ebidentzien zerrenda" atalean aipatzen diren bezala idaztea, batez ere bakoitzari dagokion zenbakia ondo aipatuta. Ebidentzia guztiak adierazi ondoren, sakatu "Gorde" botoia.

4.3.-Analisi orokorra


Pantailaren eskuineko muturrean kokatutako irekitzekoa autoebaluazio txostenaren lehen atalari dagokio: Analisi orokorra. UNIKUDE aplikazioan, analisi hori txostena idazteko prozesuaren amaieran egiten da, ebaluazio eredian bildutako irizpide guztien balorazioa egin izanak ematen duen ikuspegi orokorraz lantzeko.

"Analisi orokorra" erlaitza sakatzean, pantaila bat irekiko da eta bertan agertuko dira azken ikasturteetan titulazioak izan duen bilakaeraren balorazio orokorra egiteko behar diren atal guztiak. Era berean, hurrengo urteetarako aurreikusitako hobekuntzak ere adierazi behar dira. Bete beharreko atalak honako hauek dira:

1. Autoebaluazio txostena idatzi eta onartzeko prozesua, xehetasunez adieraziz zer interes taldek parte hartu duten dokumentuaren idazketan eta zer prozedura erabili den.
2. Egiaztapen memorian eta, halakorik balego, haren ondorengo aldaketetan ezarritako proiektuaren betetze mailaren balorazioa.
3. Egiaztapen memorian eta, hala dagokionean, haren ondorengo aldaketetan jasotako guztia bete ez izanaren arrazoiak.
4. Titulua abian jartzean eta garatzean izandako zailtasun nagusien balorazioa.
5. Zailtasunei aurre egiteko hartu diren zuzentze neurriak eta haien eraginkortasuna.
6. Titulua hobetzeko ekintzen aurreikuspena.



Testua eremuetan sartzeko, arkatzairen ikonoa  erabili beharko dugu, eta eremu editagarri batera sartuko gara, **non gehienez 4.000 karaktere idatz daitezkeen.**



4.4.-Aipamen bereziak (aukerakoak)

Doktorego programek aipamen berezi hauek izan ditzakete: Nazioartekotze-euskara, Transferentzia edo Enplegarritasuna. UNIBASQek aipamen bereziak akreditatzeko protokoloan ezartzen duen moduan, horiek eskuratzeko, jarraian **zehaztutako baldintzak bete behar dira.**

Informazio zabalagoa: <https://www.unibasq.eus/eu/tituluak-egiaztapen-berritzea/orrian>: Dokumentazioa/ Doktorego tituluak/VI. eranskina: aipamen bereziak.

BALDINTZAK:

8. irizpidea. Nazioarteko aipamena - Euskara

Doktorego programak nazioarteko aipamena eskatu ahal izango du, baldintza hau betez gero: azken sei urteetan defendatu diren **sei tesik gutxienez «nazioarteko / Europako doktorea»** aipamena izatea.

Doktorego programak eskatu ahal izango du nazioarteko aipamen berezia-euskara edukitzea, baldintza hau betez gero: azken sei urteetan **euskaraz defendatu diren hiru tesik** gutxienez «nazioarteko / Europako doktorea» aipamena izatea.


9. irizpidea. Transferentzia

Doktorego programak transferentzia aipamena jasotzeko aukera izango du, baldin eta baldintza hau betetzen badu: sei urteetan defendatutako **6 tesik "Industria doktoregoa"** aipamena izatea, edo, bestela, **enpresen eta/edo beste erakunde batzuen kolaborazioa** jasotzea.

10. Irizpidea. Enplegarritasuna

Unibertsitateak irizpide honen ebaluazioa eskatu ahal izango du, baldintza hauek betez gero: **% 90etik gorako enplegu tasa** izatea, eta doktorego programako **egresatuen % 50ak jarduera profesionala** betetzea doktoregoaren jakintza, maila eta gaitasunekin lotura argia duen lanpostu batean; edo, bestela, gutxienez **hamar kasu** dokumentatu ahal izatea, azken sei urteotan doktore titulua lortu duten eta gaur egun **lan egoera arrakastatsuan** dauden pertsonenak.

Aipamen horietakoren bat lortu nahi izanez gero, baldintzak betetzeaz gainera, irizpideari dagokion irekitzekoan ageri den check-ean klikatu behar da, bete beharreko atala ikusi ahal izateko. Hiru irizpide horiek autoebaluazio txostenaren gainerako irizpideek bezala funtzionatzen dute, eta haiek idazteko orientazio berberei jarraitu behar zaie. Beraz, ondo begiratu behar da ea baldintza guztiak betetzen diren, eta horiek bermatzeko ebidentziak erantsi beharko dira.



5.-Txostenetan egin beharreko egiaztapenak

Autoebaluazio txostena amaitutzat eman eta onartu aurretik, gomendatzen dugu honako egiaztapen hauek egitea:

1. Irizpide bakoitzerako (8., 9. eta 10. hautazko irizpideetan zehaztuak), Betetzea bermatzen duten ebidentzia eta adierazleen atalean, jasota daude irizpideen balorazio deskriptiboan aipatutako ebidentzia guztiak. Era berean, irizpide batean baino gehiagotan aipatutako ebidentzien kasuan, erreferentzia beti bera da (zenbakia eta formatua).

Horrez gain, egiaztatu ebidentzien zerrendan erlazonatutako ebidentzia guztiak izan direla kontuan irizpideen balorazioa egiterakoan. Erlazonatuta ebidentziaren bat ez erabiltzea erabakiz gero, zerrendatik kendu beharko da.

2. Irizpide guztietan egin da balorazio erdikuantitatiboa.
3. Egindako balorazioak:
 - a. Ebidentzien analisisan oinarritzen edo bermatzen dira.
 - b. egoki bada, eta hobekuntza arloak ikusi badira, hobekuntza ekintzak zehaztuta daudela egiaztatu.

6.-Txostena onartzeko eta ixteko prozesua

Txostena prestatzeko lanaren koordinazioa doktorego programako arduradunek egin behar badute ere, garrantzitsua da prozesu horretan inplikaturako taldeek (irakasleak, doktoregaiak, AZPko langileak, etab.) parte hartzea eta informazioa ematea. Horren harira, gomendatzen dugu autoebaluazio txostenaren zirriborroa kontrastatzea, eta hortik atera daitezkeen kanpo iradokizunak jasotzea.

Doktorego programaren arduraduna txostena idazten ari denean eta haren edukia batzorde akademikoan kontrastatzen ari denean, txostena "egiteke" egoeran dago. Hura amaitzean, txostenak, onartu arte, hainbat fase igaro beharko ditu:

- Doktorego Eskolako Kalitate Batzordearen kontrastea eta oniritzia.
- Doktorego Eskolaren Batzorde Iraunkorrean aurkeztea, eta hark behin betiko onartzea.
- UNIKUDEn txostena ixtea Doktorego Eskolako Batzorde Iraunkorrak onartutako dataekin. Une horretatik aurrera ezingo da aldatu (egoera: itxita), eta soilik kontsultatzeko edo inprimatzeko eskuratu ahal izango da.
- Unibertsitateko Graduondoko Batzordera bidaltzea txostena jakitun egon dadin.
- Txostena UNIBASQera eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzea eta horrekin batera doktorego programaren akreditazioa berritzeko eskaria.

ERANSKINA: Ebidentzien zerrenda

1-7 irizpideetarako ebidentziak

*Informazio iturriak: **UPV/EHUko zerbitzuak**

Bloke honetako ebidentzia guztiak nahitaezkoak dira

Kod.	Ebidentzia	Mota	Iruzkina	Iturria	Irizpidea
1	Tituluaren webgune instituzionala	URL	Tituluaren webgune instituzionala	Tituluaren webgunea	1, 2
2	Memoria egiaztatua, eta, halakorik bada, haren aldaketak eta tituluaren egiaztatze/aldatze, jarraipen eta baimentze txostenak	URL	Tituluaren webgune instituzionala, "Kalitate" atala	Tituluaren webgunea	1, 3, 6
3	Adierazleen taula	Kalk.	2014/15-2019/20 ikasturteak	UNIKUDE.	1, 4, 6, 7
4	Irakasleen taula	PDF	Zerrenda egin zeneko dataren arabera eguneratutako datuak. "Tesia prozesuan" datuak egite fasean dauden tesi guztiak hartzen ditu, bajaran dauden doktoregaienak barne.	AGZ - DOKe	4
5	Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren eskuliburua	URL	https://www.ehu.eus/eu/web/doktorego-eskola/kalitate-politika	DOKe	2, 3
6	Hitzarmenak enprekin eta beste erakunde batzuekin	URL	Tituluaren webgune instituzionala, "Antolakuntza" atala	Tituluaren webgunea	2
7	Prestakuntza jarduerak	URL	Tituluaren webgunea instituzionala, "Prestakuntza Jardueren Plana" atala.	Tituluaren webgunea	1
8	Tituluan aplika daitezkeen onarpen irizpideak	URL	Tituluaren webgune instituzionala, "Matrikula" atala	Tituluaren webgunea	1
9	Onarpen zerrenda	PDF	2019/2020 ikasturtea	DOKe - GAUR	1
10	Prestakuntza osagarriak egin dituzten pertsonen zerrenda	PDF	2014/15-2019/20 ikasturteak	GIG- AGZ - DOKe	1
11	Programan defendatutako tesien zerrenda ikerketa lerroaren arabera	PDF	(hutsik)	GAUR - GAZ	6
12	Tesiaren garapen eta jarraipen araudia	URL	https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/-/normativa-doctorado-capitulo-iii	Graduondoko ikasketen webgunea	1
13	Tesia aurkezteko eta irakurtzeko araudia	URL	https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/-/normativa-doctorado-capitulo-iv	Graduondoko ikasketen webgunea	1
14	Nazioarteko doktoregoei buruzko araudia	URL	https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/-/normativa-doctorado-capitulo-vi	Graduondoko ikasketen webgunea	1
15	Industria doktoreari buruzko arautegia	URL	https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/	Graduondoko ikasketen webgunea	1

Rod.	Ebidentzia	Mota	Iruzkina	Iturria	Irizpidea
			/normativa-doctorado-capitulo-x		
16	Doktoregoko ikasketetan jarraitzeko arauak	URL	https://www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/araudiak	Graduondoko ikasketen webgunea	1
17	UPV/EHUko ikasleen ataria	URL	http://www.ehu.es/ikasleak	Ikasleen webgunea	5
18	Laguntza eta orientazio akademikoko zerbitzuak (IAZ)	URL	http://www.ehu.es/sou	IAZ webgunea	5
19	Laguntza eta orientazio profesionaleko zerbitzuak (Enplegu Ataria)	URL	http://www.ehu.es/enplegua	Enpleguko webgunea	5
20	Ikasleen mugikortasunerako laguntza eta orientazio zerbitzuak (Nazioarteko Harremanak)	URL	http://www.ehu.es/nazioarteko-harremanak	Nazioarteko H. webgunea	5
21	Doktoregoko mugikortasunerako laguntza eta orientabide zerbitzua (Doktorego Eskola)	URL	https://www.ehu.es/eu/web/doktorego-eskola/nazioartekotzekoa	DOKe-n webgunea	5
22	Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	URL	http://www.ehu.es/discapacidad	Zerbitzuen webgunea	5
23	Doktorego programaren iradokizunen postontzia	URL	Tituluaren webgune instituzionala, azala	Tituluaren webgunea	2
24	Tesien tutoretza eta zuzendaritza lana aitortzeko mekanismoak	PDF		GAZ- DOKe	4
25	Baliabide materialak	URL	Tituluaren webgune instituzionala, "Antolakuntza" atala	Tituluaren webgunea	5
26	Doktorego programari buruzko doktoregaien iritzi inkestaren txostena	PDF	Inkestaren emaitzak eta emaitzen arteko alderaketa, adarraren eta programaren arabera	IEZ - DOKe	1, 7
27	Doktorego programari buruzko doktoregaien iritzi inkestaren galdetegia	PDF	Galdetegia gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	IEZ - DOKe	7
28	AUDIT ziurtagiria	URL	https://www.ehu.es/eu/web/doktorego-eskola/audit-ziurtagiriak	DOKe	3
29	UPV/EHUren DOCENTIAZ ziurtagiria	PDF	https://www.ehu.es/documentos/1882427/1944280/Certificado/0267e83a-912a-b7e9-10d7-336de41c7983	IEZren webgunea	4
30	Lanbideren datuak egresatutako pertsonen gogobetetzeari buruz eta laneratzeari buruz, adarraren arabera	PDF		Enplegarritasuna-DOKe	7
31	Graduondoko egresatuen gogobetetzeari eta laneratzeari buruzko galdetegia	PDF		Enplegarritasuna-DOKe	7
32	Tesien epaimahaitan parte hartu duten nazioarteko adituak	PDF		Doktoregoko Bulegoa - GAZ.	4
33	Irakasle ez diren pertsonak, doktorego tesien zuzendarikide direnak edo izan direnak	PDF	Informazio zehatza: doktoregaiaren izena, ez-irakaslearena, doktorego programa	DOKe - GAUR	4

Rod.	Ebidentzia	Mota	Iruzkina	Iturria	Irizpidea
34	Neurri bereziak, COVID-19aren pandemiak eragindako aparteko egoeragatik	PDF		GAZ	1

*Informazio iturria: **Doktorego programako batzorde akademikoa**

Bloke honetan nahitaezko eta hautazko ebidentziak daude.

Kodea	Ebidentzia	Mota	Iruzkina	Iturria	Irizpidea
	Ikertaldeek jardunean dituzten ikerketa proiektuak (1 gutxien dela)	PDF	Nahitaezkoa	Batzorde akademikoa	4
	Doktorego tesiarekin lortura duten doktoreen ekarpen zientifikoa	PDF	Nahitaezkoa	Batzorde akademikoa	6
	Ezarritako plangintzaren arabeko prestakuntza ekintzak eta kontrol sistemak	PDF	Nahitaezkoa	Batzorde akademikoa	1
	Ikerketa egonaldiak egitea		Nahitaezkoa	Batzorde akademikoa	6
	Neurri bereziak, COVID-19aren pandemiak eragindako aparteko egoeragatik	PDF	Nahitaezkoa	Batzorde akademikoa	1
	Onarpen prozesuaren aktak			Batzorde akademikoa	
	Ikasleen "Jardueren Dokumentuaren" eta "Ikerketa Planaren" urteko ebaluazioaren ebidentziak	PDF		DOKE - GAUR	1
	Unibertsitate parte hartzaileen arteko koordinazio ebidentziak, unibertsitate arteko programetan	PDF		Batzorde akademikoa	1
	Kanpoko irakasle-ikertzaile ez-akreditatuen CV	PDF		Batzorde akademikoa	4
	Kanpoko irakasle-ikertzaile ez-akreditatuen ekarpen zientifikoak	PDF		Batzorde akademikoa	4
	Nazioarteko irakasleen zerrenda, orain edo lehen egoitza atzerrian duen erakunde bati atxikitako irakasleak	PDF		Batzorde akademikoa	4
	Unibertsitate arteko programetan, tesien tutoretza eta zuzendaritza lana aitortzeko bitartekoen ebidentziak beste unibertsitate parte hartzaileetan	PDF		Batzorde akademikoa	4
	Tutoretzakidetzen zerrenda	PDF		DOKE - GAUR	6
	Bidaia baliabide eta poltsetarako finantzaketa	PDF		Batzorde akademikoa	6

Kodea	Ebidentzia	Mot a	Iruzkina	Iturria	Iriz .
	Oinarri Teknologikoko Enpresen Sorkuntza, spin-off, start-ups...	PDF		Batzorde akademik oa	6
	Doktoregaien laneratzearen analisi eta jarraipenaren ebidentziak	PDF		Batzorde akademik oa	7
	Doktoregaiei egindako gogobetetze inkesten txostena	PDF	Egindako gogobetetze inkestetan lortutako datuak (prestakuntza jardueren programa, baliabide materialak, etab.).	Batzorde akademik oa	1, 4, 7
	Irakasleei egindako gogobetetze inkesten txostena	PDF		Batzorde akademik oa	1, 4, 7
	Inplikaturako beste kolektibo batzuei egindako iritzi inkesten txostena (enpresa kolaboratzaileak...)	PDF		Batzorde akademik oa	7
	Ildoa betetzen dela bermatzen duen beste edozein			Batzorde akademik oa	

8. irizpiderako ebidentziak

Nazioarteko aipamena - Euskara:

Nazioarteko aipamena: azken sei urteetan defendatutako 6 tesik, gutxienez, nazioarteko/Europako doktorego aipamena izatea.

Nazioarteko aipamena - Euskara: azken sei urteetan euskaraz defendatutako 3 tesik, gutxienez, nazioarteko/Europako doktorego aipamena izatea.

*Informazio iturria: **Doktorego programako batzorde akademikoa**

Bloke honetan nahitaezko eta hautazko ebidentziak daude.

Irizpidea	Ebidentzia	Mota	Iruzkinak	Iturria
8	Irakasle-ikertzaileen taula – Nazioarteko irakasleak	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 4. ebidentzian eskuragarri	AGZ- DORe
8	Adierazleen taula – Nazioarteko aipamenaz defendatutako tesien kop.	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	UNIKUDE.
8	Adierazleen taula – Nazioarteko tesien kopurua euskaraz	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	UNIKUDE.
8	Adierazleen taula – Tesi kopuru osoa	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	UNIKUDE.
8	Adierazleen taula – Tesi kopuru osoa euskaraz	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	UNIKUDE.
8	Adierazleen taula – Atzerriko unibertsitateekiko tutoretzakidetzan egindako tesien kop.	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	UNIKUDE.
8	Nazioarteko irakasleen zerrenda, orain edo lehen egoitza atzerrian duen erakunde bati atxikitako irakasleak	PDF		Batzorde akademikoa
8	Nazioarteko lankidetzaz eginiko artikulak	PDF		Batzorde akademikoa
8	Ikerketa egonaldiak egitea, atzerrian	PDF		Batzorde akademikoa
8	Nazioarteko doktoregaiak	PDF		Batzorde akademikoa
8	Nazioarteko tutoretzakidetzak	PDF		Batzorde akademikoa
8	Nazioarteko hitzarmenak	PDF		Batzorde akademikoa
8	Ildoa betetzen dela bermatzen duen beste edozein			Batzorde akademikoa

9. irizpiderako ebidentziak

Transferentzia aipamena:

Sei urteetan defendatutako 6 tesik, gutxienez, "Industria doktoregoa" aipamena izan dute, edo, bestela, enpresen eta/edo beste erakunde batzuen kolaborazioa jaso dute.

*Informazio iturria: **Doktorego programako batzorde akademikoa**

Bloke honetan nahitaezko eta hautazko ebidentziak daude.

Irizpidea	Ebidentzia	Mota	Iruzkinak	Iturria
9	Adierazleen taula - Industria doktorego aipamena duten tesien kop.	Ralkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	UNIKUDE.
9	Adierazleen taula - Enpresekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako tesien kop. [zuzendarikidetzak]	Ralkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri Zuzendarikidetzak = zuzendarikidetzak x kanpo langileak	UNIKUDE.
9	Hitzarmenak enpresekin eta beste erakunde batzuekin	URL	Nahitaezkoa: 6. ebidentzian eskuragarri	Tituluaren webgunea
9	Enpresekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako tesien kop.	PDF		Batzorde akademikoa
9	Enpresekin eta/edo beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako artikuluen kop.	PDF		Batzorde akademikoa
9	Ustiapen patenteak edo erregistroak	PDF		Batzorde akademikoa
9	Erakundeek jarritako finantzaketa	PDF		Batzorde akademikoa
9	Oinarri Teknologikoko Enpresen Sorkuntza, spin-off, start-ups...	PDF		Batzorde akademikoa
9	Doktorego programak kolaborazioak (hitzarmen bidez edo gabe) izan zituen erakundeekin egindako jardueri buruzko txostenak	PDF		Batzorde akademikoa
9	Ildoa betetzen dela bermatzen duen beste edozein			Batzorde akademikoa

10. irizpiderako ebidentziak

Enplegagarritasun aipamena:

Enplegu tasa % 90etik gorakoa da, eta doktorego programaren egresatuen % 50ak azken 6 urteetan doktoregoaren mailari, ezagutzari eta gaitasunari argi lotutako jarduera profesional bat egin dute, eta haien egoera, gaur-gaurkoz, arrakasta kasutzat har daiteke.

*Informazio iturria: **Doktorego programako batzorde akademikoa**

Bloke honetan nahitaezko eta hautazko ebidentziak daude.

Irizpidea	Ebidentzia	Mota	Iruzkinak	Iturria
10	Enplegu tasa	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	Batzorde akademikoa
10	Ikerketei lotutako enplegu tasa	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	Batzorde akademikoa
10	Doktorego ondoko kontratuetarako laguntzak lortzen dituzten doktoregaien ehunekoa	Kalkulatua	Nahitaezkoa: 3. ebidentzian eskuragarri	Batzorde akademikoa
10	Arrakasta kasuak	PDF		Batzorde akademikoa
10	Postuaren kategoria islatzen duten ebidentziak	PDF		Batzorde akademikoa
10	Ildoa betetzen dela bermatzen duen beste edozein			Batzorde akademikoa